

AZKUE BIBLIOTEKAREN KATALOGOA (ABK): EUSKAL DEITUREN SARRERA NAGUSIEZ (*)

1999-XII-30

Pruden Gartzia,
Azkue Bibliotekako zuzendaria

Sarritan zalantza handiak sortzen dira euskal egileen deituren sarrera nagusia euskarazko biblioteka-katalogo batean idazteko orduan. Izan ere, era askotako grafiak erabiltzen dira, frankotan pertsona berak bat baino gehiago erabiltzen dituelarik. Kasu horietako bat Koldo Mitxelenarena da, zeinaren idazlan gehienetan *Michelena* grafia aurkitzen dugun. Horrelako kasuetan, zer egin?

I

Ohikoa da pertsona beraren deitura grafia desberdinekin idatzita ikustea, dokumentu batean honela eta bestean hala. Hori neurri batean hizkuntza guztietan gertatzen bada ere, euskal deituretan inguruko hizkuntza erromaniko edo germanikoetan baino askoz ere sarriago ikusten dugu.

Aldaera aniztasun horien sustraian, gehienetan, hizkuntza baten normalizazioarekin lotutako arazoak daude. Izan ere edozein hizkuntza, funtsean, zeinu-sistema konbentzional bat baino ez da, alegia, giza komunitate jakin bateko partaideek elkarren artean komunikatzeko nolabait *hitzartutako* sistema bat (1). Sistema hori une zehatz batetik aurrera arau gramatikal batzuen arabera kodifikatzen da, esan nahi baita, arautu egiten da, mugarri horren seinara.

(*) Txosten honen zirriborro bat Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka batzordearen 99-10-4ko bileran aurkeztu eta eztabaidatu zen. Azpimarratu behar da eztabaidan adostasun zabala lortu bazen ere, egilea dela testuaren erantzule bakarra eta bere ondorioek ez dutela batzordea lotzen. Orobat, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet batzordekideei, txostenari egindako ohar eta zuzenketa ugariengatik.

(1) F. de Saussure, *Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa*, 1916 (euskarazko bertsioa, Bilbo: Klasikoak, 1991). Euskara batuaren baitan planteaketa horrek izan duen eragin erabakigarria ikusteko ezinbesteko erreferentzia L. Villasanteren *Euskararen auziaz* (1988) da, bereziki Igo kapitulua (*Burutik kendu beharko genituzkeen irudipenak*).

lerik behinena nolabaiteko gramatika normatibo baten agerpena izaten delarik. Hortik aurrera gutxieneko arau multzoa dugu erabakitzeke hizkuntza horretan zer dagoen ondo esanda eta zer gaizki. Denok dakigunez, horietako batzuk hizkuntza horren grafiari dagozkio, alde edo moldez pertsona-izenak eta deiturak nola idatzi behar diren ere zehazten delarik.

Arauk, jakina, ez dira bapatean sortzen, aita Zeusen burutik goitik behera armaturik Atena sortu zen gisan. Aitzitik, arautze-prozesua luzea, frankotan nahiko katramilatsua eta, sarri, atzera-aurrera xeblez josia izaten da. Hizkuntza bera ere etengabeko aldaketa-prozesuan dago berez, arauak ere neurri batean etengabeko egokitze-prozesuan daudelarik. Zeresanik ez, arau horien gizarte-hedapena ere ez da bapatean egiten. Gainera, aldaketak nahiko istilutsuak dira askotan. Ortografia aldaketek, bereziki, eztabaida latzak eragiten dituzte, azken urteotan frantsesaren edo alemanaren grafia-arauen aldaketarako egin diren proposamenek erakusten diguten bezala. Horrelako arazoak munduko hizkuntza guztietan gertatzen dira.

Euskal Herrira etorri, azpimarratu behar dugu azken mendeotan nagusiki erabili izan diren hiru hizkuntzek (2) oso arautze-prozesu desberdinak izan dituztela. Frantsesak eta gaztelania oso normatibizazio goiztarrak izan dituzte, Europako lehenetakoak hizkuntza modernoan artean. Euskararena, berriz, oso berantiarra da, azkenetakoa dela ez esatearren. Hain da berantiarra, ezen atal askotan (Onomastikan, adibidez) oraindik burutu gabe dagoen. Berezi deiturei dagokienez berriki arte ez dugu izan euskal deituren grafia arautzeko irizpide zehatzik (*Nomenclátor de apellidos vascos*=*Euskal deituren izendegia*, Euskaltzaindia, 1998), beraien hedapena oraingoz nahiko mugatua delarik, euskaldun ikasien artean ere. Baina hiru hizkuntzonen arteko desoreka argi-ago ikusteko beste zenbait datu emango ditugu.

Aipatzen ari garen hiru kasuetan, hizkuntza-araugintza erakunde berezi batek gidatu du, espreski horretarako sortuak: Hizkuntza Akademiak. Desorekaz eta atzerapenez jabetzeko bakoitzaren jaiotze-data ikusi besterik ez dago: *Académie Française* (1635), *Real Academia Española de la Lengua* (1714) eta *Euskaltzaindia* (1918). Horretaz gain, lehenengo biek hasiera-hasieratik izan dute estatu boteretsu banaren laguntza beren lana bermatu eta zabalteko. Euskararen kasuan, berriz, egoera oso bestelakoa izan da. Datu bakarra emango dugu: 1790-94 bitarteko nolabaiteko estatusa kenduta, eta 1936-37 bitarteko hilabete gutxi alde batera utzirik, euskara ez da inoiz hizkuntza ofiziala izan 1978ra arte. Gaur egun ere euskara ez da ofiziala Euskal Herriaren zati handi batean. Ofizialtasunik eza horrek uka ezinezko garrantzia izan du haren normalizazio-prozesuan, bereziki nabarmena deiturei dagokienez, ezen horren ondorioz euskal deiturak beti gaztelaniazko edo frantsesezko grafian

(2) Euskara, gaztelania eta frantsesa. Gaskoiaren kasua alde batera utziko dugu, gaur egun Euskal Herrian duen munta oso txikia baita beste hiruen aldean.

eman baitira (3). Alegia, bi estatu horietako funtzionario edo letraduak (esbri-kau, notario, idazkari, erroldagile, eskola-maisu, etab.) izan dira euskal deiturren grafia finkatu dutenak, edozein administrazio-tramitetarako estatu horretako herritarren izen-deitura idatzi egin behar izan duten neurrian. Eta idatzi izan dute, jakina, estatu horretako unean-uneko grafia ofizialaren arabera, jatorrizko ahoskera hizkuntza desberdin baten arauetara makurtuz (4).

Edonola ere, gorago esan dugunari segituz, estatuaren grafia ofizial horiek ez dira bapatean sortzen. Arautze-prozesua bera hizkuntza guztietan luzea izan ohi da, eta aldaketaz eta egokitzapenez betea. Adibide batzuk jarriko ditugu horren lekuko. Gaia asko sinplifikatuz esan daiteke gaztelaniaz gaur egun darabilgun ortografia funtsean Espaniako Akademiak XVIII. mendearen hasieran finkatutakoa dela. Ordura arte erabiltzen ziren arau nagusiak Elio Antonio Nebrija filologo handiak 1517an ezarriak ziren. Baina 1726an eta 1741ean aldaketa gaitzak egin ziren: ç letra kendu zen eta beste zenbaiti eutsi bazitzaion ere, ordura arteko arauak bortizki aldatu ziren (Nebrijak *dezir*, *alçar*, Akademiak *decir*, *alzar*; Nebrijak *cauallo*, *biuir*, Akademiak *caballo*, *vi-vir*; Nebrijak *ombre*, *auer*, *hazer*, Akademiak *hombre*, *haber*, *hacer*). Aldaketa nagusiak aipatu datetan gertatu baziren ere, XIX. mende erdialdera arte ez zen gaztelaniaren gaurko ortografia finkatu eta ofizialdu, 1844an Akademiak Isabel II.a erreginaren aginduz *Prontuario de Ortografía* argitaratu zuelarik,

(3) Gaskoiaz ere badago zeresanik, baina ez dugu aipatuko arazoa larregi ez korapilatzearen.

(4) Deiturren grafia ezezik, deiturak berak ere sarritan estatu-administrazioak ezarriak izan dira. Hori fenomeno unibertsala bada ere (k.a. 2852an Txinako enperadore batek familia-deiturak hartzea dekretatu zuen), muturreko adibide bat aipatzea argigarria izan daiteke: 1849an Filipinetako Gobernadore eta Kapitain Orokorra zen Narciso Clavería Zalduak dekretu bat eman zuen uhartedi horretako biztanle guztiei deitura patronimiko bat esleitzeko. Horretarako deitura-katalogo bat osatu zuen eta kopia bat bidali barruti bakoitzeko funtzionarioburuari honako agindu honekin: “2° *Estos funcionarios, con arreglo al número de familias que calculen en cada pueblo, asignarán [enfasia gurea] a cada cual de ellas el de apellidos que parezcan necesarios, cuidando de que se guarde al hacer repartimiento por listas la correspondiente proporción*”. Parroko eta irakasleei ere eginkizun zehatzak ezarri zitzaizkien, adibidez: “11° *Los maestros de escuela deberán tener un padrón de todos los niños que asistan a la enseñanza, con su nombre y apellido, y cuidar de que no se llamen y conozcan entre sí, sino por el apellido con que constan en el padrón, que deberá ser el de sus padres; y en caso de notarse tibieza en el cumplimiento del encargo, serán los maestros castigados en proporción de la falta y a juicio del Jefe de la provincia*”. Badirudi dekretu honen betetze-maila nahiko desberdina izan zela barruti batetik bestera, baina oraindik ere Filipinetako hiri osoetan pertsona ia guztiek letra beretik hasten diren deiturak dituzte, hemen A letratik, ondokoan Btik, hurrengoan Ctik, etab., 1849an barruti horretako funtzionarioburuak esleitu zien “*Catálogo*”-aren zatiaren arabera. Deitura gehienak espainiarrak badira ere, hortxe dituzu *Echeverría* edo *Echepare* bezalako batzuk ere. Jatorrizko deiturak, berriaz, kasu gehienetan guztiz galdu dira. Ikus *Catálogo alfabético de apellidos: Manila, 21 de Noviembre de 1849*, Manila, Government Printing Office, 1973. Horrelako kasuak ugariak dira; adibidez, Frantzian 1808ko dekretu batek judu guztiak hiru hilabeteko epean familia-deitura bat hartzera behartu zituen (ez baitzuten ordura arte); Turkian 1934an ezarri zen legez europar erako familia-deiturak hartu beharra, besteak beste etnia ez-turkiarren baitan berebiziko problemak sortuz, kurduen artean, kasu.

hain zuzen ere administrazio publikoan erabilia izateko xedez. Ehun bat urteko aldaketa-prozesu mantsoa, beraz. Baina gero ere zenbait aldaketa garrantzitsu egin zen, eta gaur egun ere egiten dira. Horrela, *ss* letra 1763an kendu zen (*altíssimo*), *ch* eta *th* grekolatindarrak 1803an (*chimera, philosophia, mathematica*), zenbait kasutako *qu* (*qual, question*) eta *x*-a (*dixo*) 1815an, edota zenbait kasutako *rr*-a (*virrey*) 1884an ezarri zen. 1911ean erabaki zen *a* eta *o* preposizioei tileta kentzea, 1952an *sicología, nemotecnia, remplazar* edo *rembolso* bezalakoak ontzat ematea, eta abar (5).

Esan beharrik ez dago, ortografia aldaketa horiek guztiek eragin zuzena izan zuten deituren grafian. Adibide erraz bat gorago aipatu dugun Nebrijarena da: jaiotzez *Antonio Martínez de Cala* (beste batzuen arabera, *Antonio Martínez de Jarava* edo *Antonio Martínez de Cala y Jarava* zenak), bizi zelarik nagusiki bi modutara idatzi zuen bere izen-deitura: *Antonio de Lebrixa* (gaztelaniaz) edo *Elii Antonii Nebrissensis* (latinez) (6); izan ere, bere jaioterria zen Andaluziako Lebrija (orduko ortografian, *Lebrixa*) erromatarren sasoiko *Nebrissa*-rekin identifikatzen zuen. Bion gurutzaketatik sortu zen gerora ezarri zitzaion *Antonio de Nebrissa/Nebrixa/Nebrija*; XIX. mendetik aurrera azkenena baino ez da zilegi. Egun, *Elio Antonio de Nebrija* izen eta grafiarekin azaltzen da bazter gutzietan, baita bere idazlanen birrargitalpenen atarietan ere.

Baina aldaketa eta atzera-aurrera horien adibide bereziki egokia gure arazorako azentuarena izan daiteke. Horrela, Nebrijak *-ez* bukaeradun deitura patronimikoei (*Martínez, Pérez, Gómez, Menéndez*) tileta jartzeko agintzen badu ere, 1763an Akademiak espreski agintzen du halako deiturei ez zaiela tiletik jarri behar, 1825ean salbuespen hori berresten delarik. Baina 1880an azentuari buruzko arauak sakonki aldatu ziren, besteak beste aipatu salbuespena ezabatuz. Gaur egun gaztelaniaz darabilzkigun azentu-arauak funtsean azken data horretan ezarriak dira. Horrek esan nahi du, adibidez, gaztelaniaz hain ugariak diren deitura patronimiko horiei 1763 eta 1880 artean ez zitzaizela tiletik jarri (lehenago eta geroago bai, ordea). Hala ere, gaur egun edozein gaztela-

(5) Adibide horiek eta hurrengoetarako, ikus Esteve Serrano, Abraham: *Estudios de teoría ortográfica del español*, Murcia, Universidad, 1982. Txosten hau idatzi ondoren argitaratu da gaiaren inguruan munta berezia duen lana: Real Academia Española: *Ortografía de la lengua española: Edición revisada por las Academias de la Lengua Española*; Madrid, Espasa, 1999 (iraila), hots, espainierazko ortografiaren bertsio berria eta batua ("una *Ortografía* verdaderamente panhispánica", XIII. or.). Hitzaurrea ("Prólogo", XIII-XIX. or.) bereziki garrantzitsua da, hor baiez-tatzen baita estatuaren eginkizun erabakiorra espainierazko ortografiaren ezarpen eta hedapenean (XIII-XIV. or.), edozein ortografiaren funts hitzartua eta aldakorra ("¿Quiere esto decir que el código ortográfico recogido en esta obra debe ser invariable, definitivo, resistente a toda discrepancia y sin posibilidad de modificación posterior? De ningún modo." XVII. or.), ortografiaren batasunaren ezinbestekotasuna hizkuntzaren batasunari eusteko ("Predominó la idea y la voluntad de mantener la unidad idiomática por encima de particularismos gráficos no admitidos por todos: poco a poco, las naciones americanas de nuestra lengua se mostraron conformes con la ortografía académica y la hicieron oficial en diversas repúblicas." XIV. or.), eta abar.

(6) Biblioteca on bateko autoritate-fitxeroan begiratzuz gero aldaera askoz ere gehiago aurkitzen dugu. Adibidez, *Die Deutsche Bibliothek*-ek hogeita hamar aldaera zehazten ditu.

niadun ikasiri akats larria iruditzen zaio horrelako kasuetan (*González, Pérez, López*, etab.) tiletik ez jartzea, eta koherentziaren izenean data bi horien artean bizi izandako guztiei ere araua aplikatzen zaie, haiek ados ote leudekeen ala ez galdetzen ibili gabe.

Areago, *Feijoo* bezalako deitura baten grafia 1952an erabaki zuen Espainiako Akademiak, 1880ko arauak zuzenduz (data bion artean, *Feijóo*; osertantzean, XVIII. eta XIX. mendean tiletik gabe idazten zen).

Azken adibide bat: 1880an Akademiak erabakitzen du atzerritar izen beziak gaztelaniarazko arauari segituz azentuatuko direla (*Amiéns, Lyon, Schlegel, Leicester, Schúbert, Windsor*, etab.), baina 1952an araua aldatzen du, izen horiek jatorrian duten tileta baino ez dutela izango erabakiz (alegia, gaztelaniarazko tiletik ez zaiela ezarriko). Edonola ere, zazpi urte geroago (1959), eta munduko beste zenbait Espainieraren Akademiaren aholkuari men eginez, berriz ere araua aldatzen du, oraingoan azentua jartzea norberaren esku utziz, "hitzaren jatorrizko ahoskerak eta grafiak horretarako bidea ematen duen neurrian". Bide beretik doa 1999ko araua, zeinean atzerritar izen beziak ez direla espainieraren arabera azentuatuko esaten baita, ondoren salbuespen bat egiteko espainierak aspaldidanik bereganatutako izenekin; zeintzuk diren horiek, jakina, banan-banan erabaki behar da, hots, arauak berak ezin ditu zehaztu (7). Ortografiaren hitzarmenezko izaera ezin gardenago ageri zaigu hor.

Honaino gaztelaniaren normalizazio-prozesuarekin lotutako zenbait gertaera. Frantsesaren kasuan, berriz, azpimarratu behar dugu ofizializazio erabat goiztarra izan zuela, Villers-Cotterets-eko dekretuaren bidez (1539) auzitegiertarako frantsesa ezarriz latinaren ordez. Gaur egun ere horixe da Errepublikaren hizkuntza ofizial bakarra. Ortografiari dagokionez frantsesarena paradigmatikoki etimologista eta tradizionalista izan da: funtsean XVI. mendean erabiltzen zenak irau du gaur arte, gaztelaniak izandako aldaketa handiak nozitu gabe. Hala ere, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar Akademiak hainbat arau aldatu zuen, gaur egun erabiltzen den ortografia arrunta gutxi gorabehera

(7) "Los nombres propios de otras lenguas no hispanizadas se escriben como en la lengua originaria—no es necesario distinguirlos gráficamente—, y tampoco están sujetos a las reglas de ortografía española. Ejemplos: *Washington, Perth, Botticelli*, etc.

Las palabras de origen extranjero adaptadas a la pronunciación y a la grafía española desde fecha más o menos antigua deben seguir todas las reglas ortográficas. Ejemplos: *Basilea, brandi, Burdeos, chالé, Londres*." (Op. cit., 2.12 atala, 30. or.).

"En las palabras de otras lenguas que, por su falta de adaptación a la nuestra, escribimos con letra cursiva o entre comillas (véase 2.12), así como en los nombres propios originales de tales lenguas, no se utilizará ningún acento que no exista en el idioma a que pertenecen. Ejemplos: *catering, Aribau, Windsor*.

Si se trata de voces ya incorporadas a nuestra lengua o adaptadas completamente a su pronunciación y escritura, habrán de llevar tilde cuando lo exija la acentuación del español. Ejemplos: *búnker, París, Támesis*." (Op. cit., 4.9 atala, 53. or.).

XVII. mendearen bukaeran finkatu zelarik (8). Deituretan, berriz, finkatze-prozesua luzeagoa izan da eta XIX. mendera arte ez da erabat lortu (9). Izaera tradizionalista horren eraginez sortu diren erreforma-egitismo ugariak inoiz ez dute arrakastarik lortu, nahiz eta kasu guztietan eztabaida latzak eragin aldeko eta kontrakoan artean.

Beste hizkuntza batzuetara begiratuz, esan dezagun ingelesak bere ortografia XVIII. mendearen erdialdera finkatu zuela (S. Johnson's-en *Hiztegia*, 1755) eta ordutik ez duela aldaketa handirik nozitu, nahiz eta ugariak izan diren ortografia aldatzeko egin diren proiektuak. Izan da zenbait aldaketa, hala ere; horrela, 1880tik aurrera *music* bezalakoak onartu ziren (lehen *musick*), eta 1920tik aurrera *fantasy* bezalakoak (lehen *phantasy*), eta abar.

Normalizazioa berantiarra izan ohi da hizkuntza txikiagoetan, edo estatu indartsu baten bermea izan ez dutenetan: Norvegiako hizkuntza (edo hizkuntzak: *Nynorsk* eta *Bokmal*) 1885-1938 artean arautu eta ofizializatu ziren; katalanak 1913an finkatu zuen egungo ortografia; errumanierak 1932an; portugesak aldaketa handiak egin ditu mende honetan bertan brasildarrekiko adostasunaren bila; danierak 1958an egin zuen ortografia-aldaketa handi bat; albanierak 1972an finkatu zuen bere ortografia; galizierak oraindik ez du bere ortografia sozialki onartua ikusi; japonierak erreforma sakona egin zuen 1945ean, etab.

Labur: ortografia hitzarmen baten ondorioa da, eta hitzarmen hori desberdina da kasu batetik bestera. Kasu batzuetan oso zurruna, bestetan oso aldakorra; batzuetan oso goiz finkatu zen, bestetan oraindik ez du finkatze-prozesua bukatu. Ez da sakratua, etengabe eztabaidatua baizik, emaitza oso desberdinekin. Baina hizkuntza bakoitzak du bere-berea.

II

Nahita nahiez, euskararen normalizazio berantiarren ondorioz askotan tentsioa dago hizkuntzaren arau orokorren eta banakoan borondatearen artean. Arazo honi argitasuna emateko ezinbestekoa da Resurreccion Maria Azkue aipatzea, zeinak bere *Hiztegi* handiaren hitzaurrean atal osoa dedikatu zion gaiari (10). Bere deitura adibide gisa jarritz, argi eta garbi dio hizkuntza bakoitzak

(8) Horrek ez du esan nahi geroztik ez denik aldaketarik izan. Adibidez, *français* hitzaren gaur egungo grafia 1835ean erabaki zen (ordura arte *françois*, baina ahoskera bera); ortografia-arauen azken aldaketak 1990ean egin ziren. Horretarako, Frantziako Akademiak 1990-5-3an aho batez onartu ondoren Errepublikaren Albistari Ofizialean argitaratu ziren (*Journal officiel de la République française*, 1990-12-6). Ikus APARO (Association Pour l'Application des Recommendations Orthographiques) elkartearen web orria: <http://jupiter.fltr.ucl.ac.be/fltr/rom/ess.html>

(9) Ikus adibide ugari in Dauzat, Albert: *Les Noms de Personnes: origine et évolution*, Paris: Librairie Delagrave, 1925, 147-151 eta 156-157 or.

(10) Ikus XX. atala: *Cuestión ortográfica embarazosa/Embarrassante question orthographique*.

bere ortografia duela eta, zenbait zehaztapen gora-behera, horren arabera idatzi behar direla izen bereziak (bai leku izenak, bai deiturak). Biziki azpimarratzen du bere deituraren grafia bat eta bera dela hizkuntza guztietan (*Azkue*, alegia, eta ez *Azcue* espainieraz, *Ascouai* frantsesez edota *Ascooeh* ingelesez, ironia nabarmenez dioen bezala). Beraz, ez da dudarik Azkuerentzat euskal deiturak euskal grafian idatzi behar direla beti, edozein hizkuntza erabiltzen dugularik ere (11). Zer esanik ez euskaldunentzat eta euskaraz idatzita dauden dokumentuetan, kasu, Azkue Bibliotekaren Katalogoan. Horrek, jakina, arazoren bat edo beste sor dezake (euskaldun askorentzat euskal grafia oraindik ez da oso ezaguna, ohiturak aldatu beharra beti da neke, etab.), baina puntu honetan bere iritzia erabatekoa da:

Uno de los enemigos más temibles del hombre es la rutina; pero el vencerla es también uno de los mejores medios de mostrarse digno de serlo.

Somos pobres, muy pobres, hoy por hoy, en literatura; tenemos desgraciadamente poco que perder; por lo mismo debemos mostrar, no solo igual derecho que los ricos, pero también más ahinco, por reclamar lo nuestro.

L'un des ennemis les plus terribles de l'homme est la routine; mais la vaincre est aussi un des meilleurs de se montrer digne de l'être.

Nous sommes pauvres, très pauvres, á l'heure actuelle, en littérature. Nous avons malheureusement peu perdre; c'est pourquoi nous devons montrer en même temps, non seulement le même droit que les riches, mais aussi plus d'empressement á réclamer notre bien.

Argi dago, beraz, normalizazio berantiarrak sortutako tentsioak gainditzeko apostua egiten duela, alor honetan ere euskara beste edozein hizkuntzaren mailan jarri arte. Zenbait kasutan euskal deiturak euskal grafian ikusteak hasiera batean sor dezakeen harridura poliki-poliki gaindituz joango da.

III

Biblioteka-katalogo bateko sarrera nagusiak zein grafiaren arabera idatzi behar diren erabakitzeke, deituren kasuan ororen buru garbi izan behar dugu honako hau: helburua ez da egilearen *benetako* deitura zein den zehaztea (alegia, zein zen berak maiteen zuen grafia edo forma), katalogo bibliografiko bat antolatzea baizik. Beraz, gainerako sarrera nagusiekin gertatzen den bezala, deituren grafia katalogo horren irizpide eta premia orokorren baitara bildu behar da, eta ez alderantziz.

Adibide batzuk jarriko ditugu goiko irizpidea oinarritzeko. Jakina denez, munduan alfabeto desberdin ugari erabiltzen da (latinoa, zirilikoa, arabiarra,

(11) Salbuespenak eta zehaztapenak ez ditut komentatuko, haria ez korapilatu alde. Hala-koetan interesatua dagoenak, jo beza aipatu testura.

txinarra, etab.). Hortaz gain, alfabeto bera erabiliarren, haren zeinuak sarritan ez dira berdin irakurtzen hizkuntza batean eta bestean (adibidez, *c* letra oso modu desberdinetan irakurtzen da alfabeto latinoa darabilten hizkuntzetan). Gainera, gorago ikusi dugun bezala, hizkuntza beraren baitan historian zehar arau-aldaketa ugari egon denez, deitura bera modu desberdinetan idatzi izan da, baita ahoskatu ere batzuetan (adibidez, gorago aipatu dugun *Nebrixa/Nebrija*). Bukatzeko, ugariak izan dira historian zehar izen-deiturak aldatu edo bat baino gehiago erabili dituzten pertsonak: banako kasu ugariak alde batera utzita, sail osoak ere aurkitzen ditugu, adibidez, kristauen artean fraide eta erlijioso asko; edota herri askotako emakume ezkonduak, jakina denez herri askotan erabat arrunta baita ezkontzean senarraren deitura hartzea norberarena baztertuz (12).

Ondorioz, gure katalogoan agertzen diren egile mordo baten izen-deiturak aldez edo moldez aldatuak dira haiek jatorrian erabiltzen zuten grafia edota formatik. Kasu batzuetan alfabeto latinoa erabiltzen ez duten hizkuntzetan idatzi dutelako (grekoak, errusiarrak, arabiarak, txinarrak, japoniarrak, etab.) eta beste batzuetan beraiek erabiltzen zuten grafia gaur egun zaharkituztat jotzen delako. Jakina, gehienetan ez gara aldaketaz ohartzen, argitaletxeak berak egiten baitu aparteko argibiderik eman gabe; baina sarritan guri iristen zai-guna forma aldatua eta delako hizkuntzan normalizatua baino ez da.

Horrek bestelako arazoak paratzen dizkigu. Izan ere, alfabetoen arteko transliterazioak egiteko sistema bat baino gehiago dago eta emaitzak nahiko desberdinak izan daitezke (adibidez, *Pushkin/Pouchkine/Puxkin*). Era berean, eta batez ere normalizazio berantiarra duten hizkuntzetan, eztabaidagarria izan daiteke grafia bat zaharkituztat jotzea (alemanezko *Goethe* edo *Müller* zahar-

(12) Hortaz gain, kontuan izan behar dugu deiturak ipintzeko gizarte-ohiturak eta legeak oso aldakorrek izan direla historian zehar eta, gaur egun ere, oso desberdinak estatu batetik bestera. Horren ondorioz posible da pertsona berak deitura bat baino gehiago erabiltzea bere bizitzan zehar, edo hainbat deitura denbora berean, baina desberdinak egoeraren arabera. Adibidez, Espainian, 1870 arte ez da zehazten derrigorrezko sistema bat pertsona bakoitzari zegozkion deiturak ezartzeko: gizarte ohiturak aitaren deitura hartzea agintzen bazuen ere, posible zen gurasoek bestelakorik hautatzea edota deituradunak berak aldatzea. Data horretatik aurrera, berriz, bi deituren sistema legez ezartzen da, duela gutxi beste aldaketa bat nozitu duelarik: egun posible da amarena lehen deitura izatea, eta aitarena bigarrena. Gogora dezagun, bestalde, gaur egun sistema hori, legez, Espainian baino ez dagoela indarrean. Ikus Jaime de Salazar y Acha, *Génesis y evolución histórica del apellido en España*, Madrid, Real Academia Matritense de Heráldica y Genealogía, 1991. Deiturak erabiltzeko gizarte-ohitura bera oso aldakorra da Europan bertan ere. Adibide gisa ondoko aipua: "*El alemán Strackerjan, que ha estudiado los nombres propios de personas del país de Jever, pequeña ciudad del ducado de Oldemburgo, habla de lo tarde y lentamente que ha penetrado allí el uso del apellido. En 1826 mandó el Gran Duque que lo tuviese todo individuo; pero todavía hoy [1871], según asegura dicho escritor, apenas se usan otros nombres que los de bautismo y de oficios, y hay personas que tienen que esforzar la memoria para recordar su apellido* [énfasis gurea]", in José Godoy Alcántara, *Ensayo histórico etimológico filológico sobre los apellidos castellanos*, Madrid, Rivadeneyra, 1871, 60. or. Euskal Herrian bertan eta gaur egun ere, hainbat pertsona ezagunagoak dira beren etxe-izenaren bidez, familia-deituraz baino.

kituak ote?). Praktikan, liburuen atarietan deitura berberak grafia desberdinetan idatzita aurkitzen ditugu, batzutan honela, bestetan hala. Aniztasun hori sarrera nagusi bakar batera biltzen dugunean ez dugu inola ere esan nahi forma hautatua besteak baino *benetakoago* denik, ez eta deituradunak hura hobesten zuenik beste guztien gainetik. Esaten ari garena da hura bestea baino *ego-kiago* dela gure katalogoaren premietarako.

Beste adibide pare bat jarriko dugu. Gonzalo de Berceok modu bat baino gehiagotan idatzi zuen bere izen-deitura: *Gonzalo/Gonzalvo* eta *Berçeo/Berzeo* (inoiz edo beste *Verçeo* ere ikusten da, ez dakigu nondik hartua). Hala ere, gaztelaniaz gaur egun *Gonzalo de Berceo* baino ez da onartzen, eta inork ez du kontuan izaten grafia hori erabiltzean haren borondatea bortxatzen ari ote garen ala ez. Gainera, beronek ere forma bat baino gehiago erabili zuen: zein da *benetako*a? Antzeko kasua François de Malherberena da: sinatzeko ere hiru forma desberdin erabili zituen *Malerbe*, *Malherbe* eta *Maleherbe*, baina gaur egun *Malherbe* baino ez da onartzen. Napoleon Bonaparteren kasua apur bat desberdina da. Korsikan jaioa, bere ama-hizkuntza italiarra izanik *Napoleone Buonaparte* gisa munduratu zen; mutiko zelarik eta frantsesa tutik jakin gabe Frantziara ikastera joanik, eskolan aldatu zioten izen-deitura, berari ados ote zegoen galdetu gabe, jakina. Ordutik aurrera Frantzian *Napoléon Bonaparte* izan zen; Alemanian forma berbera erabiltzen dute, tilet eta guzti. Espainian, berriz, *Napoleón Bonaparte* da, eta Ingalaterran, *Napoleon Bonaparte*. Italian, ordea, *Napoleone Buonaparte* izaten segitzen du gaur egun ere, nahiz eta italieraz maizago ikusten den *Napoleone Bonaparte* (alegia, gaur egun haren deitura bi modutara erabiltzen da). Zein ote da, ordea, berak bere-beretzat jotzen zuen forma? Ez dakit inor ausartuko ote den erantzuten, batez ere ikusirik batzutan *Bonaparte* eta bestetan *Buonaparte* sinatzen zuela (13). Beharbada biak joko zituen neurri berean bere. Errazago da pentsatzea ziur aski bere amarentzat beti izango zela *Napoleone* (inoiz ez omen zuen frantsesa ondo ikastea lortu). Baina, azken hori ote da biblioteca-katalogo batean erabili beharreko irizpidea? (14) Garbi dago ezetz.

Horregatik, Azkue Bibliotekaren Katalogoan sarrera nagusi gisa *Koldo Mitxelena* idaztea aukeratzen dugularik, horrek ez du batere zerikusirik filologo handi haren borondatearekin. Edo, hobeto esanda, haren borondatea oso bigarren mailako eragilea da.

(13) Ikus Espasa entziklopedia, *Napoleón* sarrera.

(14) Haria ez korapilatzerren adibide errazak jarri ditugu. Badira franko katramilatsuaogak, adibidez, San Inazio Loiolakoaren izenaren argiketak sortarazi duen bibliografia eskerga (Gabriel María Verd-en hainbat artikulu ikusi besterik ez dago). Bestalde, egia da zenbat eta aurrerago jo historian era horretako kasuak bakantzen eta sinplifikatzen direla, baina normalizazio berantiarra izan duten hizkuntzetan edo estaturik gabeko nazioetan (gehienetan prozesu biak elkarren eskutik doaz) izen-deituren normalizazioa ere nabarmenki atzeratzen da. Adibidez, "*recientemente [1871] en Hungría y Bohemia centenares de familias han obtenido autorización para volver a tomar los nombres nacionales que habían dejado por otros alemanes bajo el régimen austríaco*" in Godoy Alcántara, op. cit. 11. or.

IV

Bibliotekonomiako nazioarteko arauen arabera, banako egile baten sarre-
ra nagusia idazteko haren izen-deituren formarik arruntena eta erabiliena hau-
tatu behar da (15). Jakina, grafia arauak eta ohiturak hizkuntzaren beraren bai-
tan denboran zehar aldatzen direnez gero, gaur egungo katalogo bat egiteko
gaur egun edota etorkizun hurbilean grafiarik edo formarik arruntena eta za-
balduena hartuko da, zaharkituztat jotzen direnak egungo moldeetara aldatuz.
Era berean, atzerriko izen-deitura duten egileen kasuan beste horrenbeste egin-
go da, alegia, gaur egun arruntena eta erabiliena den grafia eta forma hartuko
da. Zalantzak egon daitezkeenez gero, egileen hizkuntzaren edota herriaren
arabera sortu eta eguneratutako autoritate-zerrendak erabiltzea gomendatzen
da: biblioteka nazional bereziki garrantzitsuek osatutakoak, erreferentziako
entziklopediak, edo antzekoak (16).

(15) Herrialde anglofonoen eta Espainiako katalogazio-erregelak oso esplizituak dira pun-
tu honetan; horrela, "*Choice of name*, 22.1. General rule 22.1A. In general, choose, as the basis
of the heading for a person, the name by which he or she is commonly known. This may be the
person's real name, pseudonym, title of nobility, nickname, initials, or other appellation. [...]" in
Anglo-American Cataloguing Rules, Second Edition, 1998 revision. Baita "15.1.1 Eleccion del
nombre 15.1.1A Regla general. Se tomará como base del encabezamiento el nombre por el que
comúnmente se le conoce como autor de acuerdo con las obras publicadas en su propio idioma.
Puede ser el verdadero nombre, un seudónimo, un título de nobleza, un apodo, etc." in *Reglas de
catalogación: Edición refundida y revisada* (1995). Frantziako katalogazio-erregelak egileak be-
rak hautaturiko forma aipatzen dute, baina azken finean erabilera arrunta hobetsiz: "1 Vedettes
noms de personne: recommandations générales. En règle générale, le nom de l'auteur es mis en
vedette sous la forme qu'il a lui-même adoptée ou que l'usage a consacrée, en respectant la grap-
hie des formes (espaces, abréviations, etc...). Cette vedette peut être un nom d'état civil (nom de
famille et éventuellement prénom), un pseudonyme, un nom de terre, un nom de religion, un pré-
nom, des initiales ou toute autre locution [...]" in *Documentation: Catalogage: Forme et struc-
ture des vedettes noms de personne, des vedettes titres, des rubriques de classement et des titres
forgés*, NF Z 44-061 Juin 1986, Norme Française éditée et diffusée par l'Association Française
de Normalisation (AFNOR), Paris, 1986.

(16) Adibide on bat Kataluniako unibertsitateek erabiltzen duten irizpidea da:

"Encapçalaments de persones: regla general

Tria del nom:

A l'hora d'establir el nom d'una persona seleccioneu la font catalográfica correspondent a
partir dels criteris següents:

1er. El país de residència o d'activitat de la persona;

2n. Si no sabeu el país de residència o d'activitat dela persona, la seva llengua de creació;

3r. Si tampoc sabeu la seva llengua de creació i la persona treballa en un context verbal,
la llengua predominant en els registres de les seves obres existents en el CCUC.

En cas que això no sigui possible determineu el nom i la forma del nom de la persona tal
com s'estableix a les AACR2r.

Fons catalográfiques:

1) Noms de persones catalans i altres que segons la normativa s'hagin de donar en la for-
ma catalana:

1er. Autoritats de la Biblioteca de Catalunya validades:

Registres d'autoritat amb el codi 'a' com a Nivell de validesa de l'encapçalament (008,
pos.33) i etiqueta 040.

Adibide batzuk jarriko ditugu izenak hautatzeko arau nagusia zuzen ulertu ahal izateko. Horrela, Antonio de Nebrijaren edo Gonzalo de Berceoren izenik arruntenak eta erabilienak egungo gaztelaniadunen artean *Antonio de Nebrija* eta *Gonzalo de Berceo* dira. Beraz, katalogazio-hizkuntza gisa gaztelania hartzen badugu, horietatik hautatuko ditugu. Era berean, alemanezko, ingelesezko edo frantsesezko katalogoetan ere horietatik aukeratzen dituzte, hain zuzen ere horietatik direlako arruntenak eta erabilienak gaur egungo germanofonoen, anglofonoen edo frankofonoen artean (baina ez, inola ere, XVI. mendeko aleman, ingeles eta frantsesen artean). Kasu horietan gaztelaniaz normalizatu den grafia da beste hizkuntzetara pasa dena. Ez da beti horrela gertatzen. Adibidez, gorago ikusi dugun bezala, Napoleon Bonaparteren izen-deituren grafia ez da berdina espainieraz, frantsesez edo ingelesez (tiletaren kokapena aldatzen da); gainera, izena bera desberdina da italianoaz (*Napoleone*) eta gaitetiko hizkuntzetan (*Napoleon*); bukatzeko, italianoaz ere forma *frantseztua* nagusitu bada ere (*Bonaparte* da biblioteketako sarrera nagusia) hainbat jendek jatorrizko forma erabiltzen du oraindik (*Buonaparte*). Kasuak eta kasuak daude, beraz (17).

2n. Quan no es troben establerts a la BC i la normativa estableix que el nom s'ha d'obtenir d'una font de referència, empreu de forma preferent la Gran enciclopèdia catalana. 2ª ed. 1986: Comproveu si la forma, addicions, etc. del nom segueix la normativa establerta per les AACR2r.

2) Noms de persones de la resta de l'estat espanyol:

Autoritats de la Biblioteca Nacional d'Espanya:

Traduïu al català tots aquells element (addicions, etc.) que segons les AACR2r han d'anar en la llengua del catàleg.

3) Noms de persones de fora de l'estat espanyol:

Autoritats de la Library of Congress:

Traduïu al català tots aquells elements (addicions, etc.) que segons les AACR2r han d'anar en la llengua del catàleg.

En el cas dels noms escrits en una escriptura no llatina comproveu que les taules de transliteració emrades siguin les mateixes que les establertes a la pauta 22.3C."

In *Pautes per la catalogació en el CCUC [Catàleg Collectiu de les Universitats de Catalunya]*, 1998-04-30, <http://www.cbuc.es/pautes/p22-1.htm> [Consorci de Biblioteques Universitàries de Catalunya-ren webgunea].

(17) Arau nagusia beti da hizkuntza-komunitate jakin batean gaur egungo formarik arruntena eta erabiliena hautatzea. Jakina denez, gaur egun forma hori egilearen jatorrizko hizkuntzan normalizatutakoa izan ohi da, baina badira salbuespenak. Adibidez, gaur egungo anglofonoen artean orohar egile bakoitzaren izena bere jatorrizko forma normalizatuan erabiltzen da, baina zenbait kasutan forma *ingeleztua* jatorrizkoa baino ezagunagoa eta erabiliagoa da (santuak, erregeak, profetak, etab.) eta, ondorioz, katalogazio-arauetan hura lehenesten da jatorrizkoaren kaltetan. Horrela AACR2r-ek honako kasuak aipatzen ditu: "22.3. Choice among different forms of the same name [...] 22.3B3. Names written in the roman alphabet and established in an English form. Choose the English form of name for a person entered under given name, etc. [santuak, profetak, erregeak, aita santuak, kardinal edo apezpikuak, pertsonai historiko nabarmenak, etab.] or for a Roman of classical times [Erroma klasikoko pertsonai nabarmenak] whose name has become well established in an English form in English-language reference sources. [...] 22.3C. Names written in a nonroman script 22.3C1. Persons entered under given name, etc. Choose the form of name that has become well-established in English-language reference sources for a person entered un-

Euskarara etorritz, arauari segituz badirudi hauxe litzatekeela galdera zuzena: zein da delako pertsonaren izen-deituren grafia arruntena eta erabiliena gaur egungo euskaldun ikasien artean? Alegia, euskarazko katalogoak euskaraz egiten dira beren erabiltzaile naturalak euskaldun ikasiak direlako. Izan ere, Alemaniako katalogoak alemanez egiten dira haien erabiltzaile naturalak aleman ikasiak direlako, eta horrelaxe munduko gainetiko katalogo guztiak. Kasu bakoitzean hiztun ikasien ohitura eta erabilera da hautatu beharreko forma zehazten laguntzen diguna. Zein da euskaldun ikasien artean?

Galdera horren erantzuna askotan nahiko zaila da, espainieraz, frantsesez, ingelesez edo alemanez mintzo diren hiztun ikasien kasuan baino zailagoa bederen. Izan ere, bada funtsezko desberdintasun bat: euskararen normalizazio prozesua oso berantiarra da, espainiera edo frantsesaren aldean bederen. Hizkuntza horietan, salbuespenak salbu, deituren grafia gutxienez duela ehun bat urte finkatu zen, eta gaur egun nahiko uniforme eta koherentea izan ohi da. Euskararen kasuan egoera oso bestelakoa da: deituren grafari dagokionez normalizazio-prozesua oraindik ez da burutu (lehenengo erabaki sendoak 1998an hartu ziren) eta beren hedapena oraingoz nahiko mugatua da. Hala eta guztiz

der given name, etc. whose name is in a language written in a nonroman script. If variant English-language forms are found, choose the form that occurs most frequently. As required, make references from other forms. [...] 22.3C2. Persons entered under surname. *Alternative rule.* This alternative rule may be applied selectively language by language. Choose the romanized form of name that has become well established in English-language reference sources for a person entered under surname [...] whose name is in a language written in a nonroman script. [...] If variant romanized forms are found in English-language reference sources, choose the form that occurs most frequently. As required, make references from other romanized forms. [...]". Espainiako Arauek (1995) irizpide berbera segitzen dute, nahiz eta modu sintetikoago batean formulatu: "15.1.1 B Elección entre varios nombres o varias formas del mismo nombre [...] 15.1.1 B f) Variaciones lingüísticas [...] 4. Se escogerá la forma española (1) para los santos, beatos, papas, emperadores, reyes, príncipes reinantes, así como en el caso de los clásicos griegos y latinos (2). (1) Las expresiones 'en español' o 'forma española' aplicadas a la lengua, se refieren a cualquiera de las lenguas oficiales habladas en España (2) Para los nombres más frecuentes de clásicos griegos y latinos, véanse Apéndices III y IV". Alegia, Espainiako Arauek (1995) berek ematen dute kasu berezi horietan erabili beharreko autoritate-zerrenda, zeinetan agertzen baita egungo gaztelaniadunen artean ohikoena diren formak eta grafia. Frantziako katalogazio-erregelak, aldiz, apur bat desberdinak dira: kasu guztietan jatorrizko hizkuntzan normalizatutako forma hautatzea gomendatzen bada ere, zenbait kasu berezietan (izen klasiko latino eta grekoak, santuak, erregeak, etab.) forma frantsestua hautatzea aukera gisa baimentzen da: "1.2 Choix entre plusieurs formes d'un même nom. [...] 1.2.2 Formes en plusieurs langues. Selon le principe admis sur le plan international, on respecte dans la mesure du possible les usages nationaux; on transcrit la vedette dans la langue du pays dont l'auteur est citoyen s'il publie dans cette langue, sinon dans la langue habituellement employé par l'auteur. [...] Les cas particuliers se traitent de la façon suivante: 1.2.2.1 Noms de l'Antiquité. Noms latins (jusqu'en 476): on choisit la forme latine au nominatif. S'il existe une forme française consacrée par l'usage, elle peut être employée dans les catalogues où elle serait plus appropriée. Des renvois doivent être établis des formes non retenues à la forme mise en vedette." in NF Z 44-061 Juin 1986. Azken atalean agertzen den esatera ("S'il existe une forme française...") hitzez-hitz errepikatzen da ondorengo zazpi ataletan (Erdi Aroko izenak, Ernazimendukoak, bizantinoak, santu-izenak, aitasantuak, errege-erreginak eta alfabeto ez-latinoetan idatzirikoak).

ere, garbi dago katalogazio-arau nagusiaren arabera ooren buru gaur egungo euskaldun ikasien praxia bera dela bidea erakutsi behar diguna. Eta ildo horri jarraituz esan dezakegu azken hogeita hamar urteetan euskara batuaren normalizazio-prozesu orokorraren bilakaerak eta deituetan euskal grafia erabiltzeko gizarte-ohitura gero eta zabalagoak, argi eta garbi norabide bat markatzen digutela. Zein da, beraz, gaur egungo euskaldun ikasien erabilera?

Orohar, bi motako kasuak ditugu: euskal deiturak eta gaintetikoak (18). Euskal deituren kasuan gaur egungo euskaldun ikasien artean formarik arruntena eta erabiliena euskal grafia da. Zenbat eta gazteago, orduan eta arruntago: bereziki azpimarratu behar da euskarazko irakaskuntza jaso duten gaztetxo askorentzat *Azcue*, *Echeverría* edo *Michelena* bezalako grafiak oso arrotzak eta gutxi erabiliak direla. Era berean, euskal komunikabideen praxia, bereziki *Euskaldunon Egunkariarena*, erabat argigarria da (19). Itxura guztien arabera joera hori gero eta indartsuagoa izango da.

Orobat, erdal deituren artean bi maila bereizi ohi dira: alfabeto latinez idazten direnak jatorrizko grafian erabiltzen dira (gaztelaniazko deiturak gaztelaniazko egungo grafian, frantsesezkoak frantsesezkoan, ingelesezkoak ingelesezkoan, etab.), eta bestelako alfabetoak darabiltenen kasuan ohiturak oso finkatuta ez badaude ere, ziur aski *Euskaldunon Egunkarian* erabiltzen diren transliterazio-taulak dira hedatuenak (20).

Bada irizpide orokor horren salbuespen nabarmen bat: euskal herritar izan gabe euskal deituradunak diren estatubatuar, argentinar, mexikar, eta abarrek kategoria berezi bat osatzen dute, egungo euskaldun ikasien artean gaztelaniazko/frantsesezko grafia errespetatzeko ohitura dagoelarik, adibidez, *Julio Cortázar*, *Alfredo Bryce Echenique*, eta abar (21).

(18) Jakina, euskal eta erdal deiturak ez dira ura eta olio bezala bereizten, zenbait kasutan franko korapilatsua delarik alde batera edo bestera erabakitzea. Baina K. Mitxelenak esan zuen legez, "Todos tenemos una idea bastante clara de lo que queremos decir al hablar de apellidos vascos, y aquí no vamos a usar esa designación en un sentido muy apartado de su acepción corriente" (*Apellidos vascos*, 1953, Hitzaurrea, *Qué entendemos aquí por apellidos vascos* atala). Beraz, kasuan kasuko zehaztapenak eta irizpenak espezialistei utziz, kontzeptu horrek gaur egun duen adiera arruntari segituko diogu. Argitasun gehiagorako, ikus Mitxelenaren aipatu testua (argitaraldi ugari ditu).

(19) Ikus Euskaldunon Egunkaria: *Estilo liburua*, 1995, 188-192 arauak. Bereziki 188. araua: "Euskal herritarren euskarazko abizenak euskaraz idatziko dira beti [enfasia gurea]". Hori da ere euskal komunikabide gehienetan gutxi gorabehera segitzen den irizpidea. Gaztelaniazko komunikabideetan ere euskal deituetan euskal grafia erabiltzeko ohitura oso zabaldua da, eta oraingoz sistematikoa ez bada ere, erabat arrunta da bai Euskal Herriko bai Madrilako prentsan.

(20) Ikus *Estilo liburua*, 1995, 1go eta 2. taulak, 104-106 or. Munduko beste edozein lekutan bezala, Euskal Herrian ere komunikabideek lan erabakiorra egiten dute atzerriko pertsonaien izen eta grafia normalizatua zabaltzeko.

(21) Gizarte-ohitura zabalak izateaz gain, kasu batzuetan ezinbestekoa dirudi. Adibidez, Aguirre izeneko estatubatuar batek ingelesaren arabera ahoskatuko du bere deitura (alegia, *A(g)uaia* moduko zerbait) eta, ondorioz, kasu horretan grafia euskararen arabera normalizatu nahi

Orobat, argi izan behar da beti ere grafia-aldaketei buruz ari garela, inola ere ez deitura-aldaketei buruz. Horrela, eta esan duguna errepikatuz, lehenak guztiz arruntak eta zabalduak badira ere (*Michelenaren* ordez *Mitxelena*, eta abar), gaur egun ez dago deiturak aldatzeko inolako ohiturarik. Adibide batzuk jarriko ditugu: *Bilbao* deitura ez da **Bilbo* bihurtzen, ezta ere *Mon-dragón* deitura **Arrasate* (*Mondragon* baizik) edo *San Sebastián* deitura **Donostia*, edo *Arcangues* deitura **Arrangoitze*; era berean *Cenarruzaveitia/Cenarruzabeitia* deitura *Zenarrutzabeitia* idatzi ohi da, baina inola ere ez **Ziortza*. Bereizketa hori kontuan izatea oso garrantzitsua da gure arazoaren argitasunerako (22).

Beraz, katalogazio-arauek ororen buru gaur egungo euskaldun ikasien erabilera segitzeko agintzen digute. Horren arabera, badirudi irizpide orokorra hau litzatekeela: sarrera nagusi gisa, euskal herritarren euskal deiturak euskal grafian idatziko dira eta gainetiko deiturak beren jatorrizko grafian, beharrezkoa denean transliterazio-taulak erabiliz (23). Ez da grafia zaharkituen erabilerarik onartuko, ez kasu batean ez bestean (24). Orobat, kasu guz-

izateak deitura bera aldatzea lekarke ezinbestean. Beste arazo mota baten aurrean geundeke, beraz.

(22) Horrela, AACR2r-n argi eta garbi bereizten da bi kategoria desberdinak direla, bakoitzari atal desberdin bat eslelituz: 22.2 Choice among different names eta 22.3 Choice among different forms of the same name. Frantziako erregeletan banaketa berbera dugu: 1.1 Choix entre plusieurs noms eta 1.2 Choix entre plusieurs formes d'un même nom. Espainiako Arauetan (1995) berriz, bi kategoriak bat eginda datoz (15.1.1 B Elección entre varios nombres o varias formas de un mismo nombre), nahiz eta gero kasuak banan-banan bereizten diren: 15.1.1 B a) Varios nombres 15.1.1 B e) Variaciones gráficas; 15.1.1 B f) Variaciones lingüísticas; etab.

(23) Orobat, kontuan hartzekoa da pertsonai historiko askoren izenak (santuak, erregeak, apezpikuak, etab.) zehaztapen bereziak beharko dituztela, irizpide orokorraz landara.

(24) Horrek esan nahi du normalizazio berantiarreko hizkuntzetan ezin dela AACR2r-ren 22.3 araua, edo Espainiako Arauen (1995) 15.1.1 B araua, edo Frantziako arauaren (NF Z 44-061) 1.2.2 atala, modu mekaniko batean aplikatu. Hasteko, garbi izan behar da aipatu hiru arauok izena hautatzeko arau nagusiaren segida eta aplikazio praktikoa baino ez direla, eta berori berdina edo franko antzekoa dela hiru kasuetan. Alde batera utzirik berorren aplikazio zehatza apur bat desberdina dela kasu bakoitzean (badirudi AACR2r-n zehazten den 22.3B1 atala batez ere ponte-izenei aplikatu behar zaiela, baina haren osagarria den 22.3B4 atala harrigarri desberdina da; Espainiako Arauetan, berriz, angloamerikanoen 22.3B1 atala itzultzen eta osatzen da, deiturerata ere zabalduz; Frantziakoan, bestalde, hiritartasuna azpimarratzen da, beste biotan ez bezala), hiru kasuetan alde ez moldez egilearen idazlanetan eta erreferentziako iturrietan gehien agertzen den forma hartzea agintzen da. Garbi dago irtenbide hori hizkuntza normalizatueterako dagoela pentsatua, eta huts egiten duela bestelako kasuetan. Izan ere, normalizazio berantiarreko hizkuntzetan iraganeko produkzio bibliografikoa (mende honetakoa bada ere) askotan ez dator bat hiztun-komunitate horretako gaur egungo gizarte-ohiturekin eta erreferentziako iturriak, berriz, sarritan oso ahulak izaten dira, edo beste hizkuntza normalizatu batean egoten dira. Adibidez, Koldo Mitxelenaren kasuan aipatu hiru arauok mekanikoki aplikatuz gero *Luis Michelena* lehenetsi beharko genuke, hori baita bere jatorrizko lanetan eta erreferentzia-iturri nagusietan gehienetan agertzen den forma eta grafia. Baina nabarmena da gaur egungo euskaldun ikasientzat formarik arruntena eta erabiliena *Koldo Mitxelena* dela. Eta izena hautatzeko arau nagusia segitu nahi badugu, ezin dugu forma edota grafia zaharkitu bat onartu, euskarazko katalogo baten erabilzaila

tietan ager daitezkeen aldaera guztiak bigarren sarrera gisa katalogatuko dira (25).

V

Dudarik gabe, Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* da eskuartean dugun kontua argitzeko autoritate nagusia (26). Baina azterketa sakon baten ondoren ateratzen dugu kasu askotan ezin dela egile baten izen-deituren grafia besterik gabe handik hartu. Darabilen irizpide nagusia, ordea, gorago aipaturiko berbera da eta, beraz, oso baliagarria suerta dakiguke zenbait zalantza argitzeko eta norabide nagusia markatzeko.

Eusko Bibliographia printzipioz ez dago hitzun-komunitate zehatz bati zuzendua, hots, ez dago hizkuntza-hatsapen jakin baten arabera antolatua. Horrela, hitzaurrea, erabiltzeko argitasunak, laburdurak eta gaien aurkibidea bost hizkuntzatan daude (hurrenez hurren, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez). Baina eleaniztasun hau guztiz azalekoa da: ardatza gaztelania da, gainetiko hizkuntzen erabilera askoz ere txikiagoa delarik.

Adibide batzuk jarriko ditugu. Gaien sarrera-hitzak bost hizkuntzetan badaude ere, nagusia beti gaztelaniaz da, beste guztiek horretara igortzen dutelarik; gaien aurkibideak berak ere honako egitura du: sarrera-hitzen zerrenda alfabetikoki ordenatua eta termino bakoitzaren gaztelaniazko parekidea (alegia, soilik gaztelaniazkoa, hori baita nagusia); gaztelaniazko gai-zerrendak berak ez du parekiderik. Beste adibide bat. Leku-izenen kasuan sarrera nagusiak gaztelaniaz daude Hego Euskal Herrirako, eta frantsesez Ipar Euskal Herrirako; kasu batzuetan (ez beti) euskarazko terminoa ere agertzen da, baina beti ere gaztelaniazko parekidera igortzeko (27) edo frantsesezkora (28); beste ba-

naturalen ohituren kontrakoa baita. Beraz, normalizazio berantiarreko hizkuntzen kasuan arau nagusia aplikatzeko beste prozedura bat zehaztu beharko da. Berriz ere azpimarratu egingo dugu: arau nagusi berberari eutsi ahal izateko, haren aplikazio-prozedura desberdinak zehaztu behar dira, kasuan kasukoak.

(25) *Bigarren sarrera(k)* terminoa biblioteca-katalogo batean erabiltzen da *sarrera nagusi* ez diren sarrera multzo guztiak edo bakoitza izendatzeko. Ingelesez, *secondary entry*, gaztelaniaz *encabezamiento secundario* eta frantsesez *vedette secondaire* edo *renvoi*.

(26) Euskal bibliografoen artean erreferentzia nagusi bat hautatzekotan adostasun zabalago litzatekeela iruditzen zait. Besteen lana gutxietsi gabe, *Eusko Bibliographia* da egun eskura dugun lanik modernoena eta sendoena, zalantza barik. Hala ere, aipamen labur batzuk egingo ditugu. J. Vinsonen lan klasiko eta ordezkaezinak arazo honetan ez digu laguntza handirik eskaintzen, jatorrizko dokumentuen grafia zehatz-mehatz jasotzeko ez bada. Allende Salazar eta Jose Ignacio Aranaren lanak informazio baliosa ematen dute, baina mugatuak dira Jon Bilbaorenaren asmoen eta neurrien aldean. Odon Apraizek eta Nicolas Altzola Gerediagak, berriz, ez dute lan sistematikorik argitaratu, baina oro har euskal formak erabiltzeko joera nabaria dute.

(27) ARABA ikus ALAVA, AMEZKETA (Guipuzkoa) ikus AMEZQUETA, etab.

(28) AMIKUZE (Benaparra) ikus MIXE

tzuetan gaztelaniazko terminoak frantsesezkora igortzen du (29) baina euskarazkorik ez dago (30); Euskal Herritik kanpoko terminoak ia beti gaztelaniaz agertzen dira (31); euskarazko leku-izenak soilik toponimia txikian agertzen dira (harpeak, mendiak, etab. (32). Alegia, gaztelania da erabat nagusi, ondoren frantsesa ere nahikotxo erabiltzen delarik; euskara modu marginal batean erabiltzen da, eta ingelesa eta alemana guztiz modu sinbolikoan. Horren adibide polita honako hau da: Azkarate (Benaparra) ikus Ascarat; Azkarate (Naparra) ikus Azcarate; garbi dago zein den praktikan hizkuntza bakoitzak duen estatusa (33).

Deiturei dagokienez erabilera oso antzekoa da. Obraren egitura ohi baina korapilotsuagoa denez, azalpen osagarri batzuk eman beharrean gaude. Hiru maila (eta ez bi) bereiz ditzakegu: lehenean, dokumentuaren deskribaketa dago, bigarrenean, egilearen berberaren dokumentu multzoaren sarrera nagusi normalizatua (edo *erdi-normalizatua*), eta hirugarrenean sarrera nagusien ordenazio alfabetikoa egiteko erabiltzen duen sarrera nagusi *birnormalizatua*. Adibide batekin hobeto ulertuko da. *Alava* terminoa leku-izena izateaz gain, deitura ere izan da, eta bada. Bai kasu batean bai bestean, historian zehar gaztelaniaz bi modutara idatzi izan da: *Alava* eta *Alaba* (34). Deiturari dagokienez, lehen mailan Jon Bilbaok *Alava/Alaba* deituradun egileen dokumentuen deskribapena eskaintzen digu: maila honetan ia inoiz ez da dokumentuak berak dakarren grafia jasotzen (35); bigarrenean, egile bakoitzaren sarrera nagusia dator, kasu batzuetan *Alava* eta bestetan *Alaba* (36). Baina hirugarren mailan, bi aldaera horiek beste bakar batera biltzen ditu: *Alava*, leku-izenaren sarrera nagusia bezala. Ondorioz, zerrendatze-modua apur bat ez-ohikoa da, ezen ordenatzeko sarrera nagusi gisa onartzen duen termino bakarra *Alava*

(29) Bayona (Laburdi) ikus Bayonne

(30) Alegia, ez dago Baiona

(31) Aquitania, Escocia, Estados Unidos de América, Francia, Génova, etab.

(32) Aitzbeltz (Cueva) (Mendaro) (Guipúzcoa), Aitz-Bitarte (Cueva) (Guipúzcoa), AITZGORRI (Guipúzcoa), etab.

(33) Ezaugarri horiek Eusko Bibliographiaren lehenengo bi atalei dagozkio, alegia, -1960 eta 1961-1975. Hurrengo bi ataletan gaztelaniaren nagusitasuna indartu egiten da: 1976-1980 bi-tartekoan gainetiko hizkuntza guztiak desagertzen dira, eta 1981-1985ean euskara berragertzen da hitzaurre eta atarikoetan. Hala ere, azaleko aldaketa horiek gora-behera, irizpide nagusiak beti berberak dira obra osoan zehar.

(34) Leku-izenaren euskarazko parekidea, *Araba*, alde batera utziko dugu azalpen honetan.

(35) Jon Bilbaok berak aitortzen du hori dela bere obraren akats handienetako bat: "Una de las deficiencias de mi descripción bibliográfica fue el no haber puesto después del título el nombre del autor tal y como aparece en la portada. De haberlo hecho el usuario podría haber sabido en qué obras el autor usa el seudónimo y en cuáles no". Ikus Bilbao, J. eta Moreno, L.: "Eusko Bibliographia, pasado, presente y futuro", in *Bibliotecas públicas II-III jornadas=Liburutegi publikoak II.III. ihardunaldiak*, Donostia: Gipuzkoako Bibliotekari eta Dokumentalisten Elkartea, 1991, 130. o..

(36) Adibidez, Alaba Esquivel, Andres de; Alaba Esquivel, Diego de; baina Alava Esquivel, Miguel Ricardo de.

bada ere (bai leku-izen gisa, bai deitura gisa), zerrendan ikusten dugun sarre-
rak batzutan *Alava* eta bestetan *Alaba* dira. Beraz, bat barik bi normalizazio-
maila ditugula esan dezakegu, nahiz eta guri axola digun maila hirugarrena
izan, soilik horretan aurkitzen baititugu beste edozein katalogotan sarrera na-
gusien pareko diren sarrerek (37). Eta maila horretan, zein da normalizazio-
irizpidea?

Obraren ardatza gaztelania denez, printzipioz, eta beherago egingo dugun
zehaztapenak gora-behera, sarrera nagusi gisa kasu gehien-gehienetan gaur
egungo gaztelaniadun ikasientzat arruntena eta erabiliena den grafia aukeratzen
da (38). Bigarren mailan aniztasun haundiagoa dago eta, horrela, frantsesezko
edo euskarazko grafiak, edota grafia zaharkituak ere agertzen dira (39), baina
hirugarren mailan, alegia, benetan axola digun mailan, irizpide nagusia oso gar-
bia da. Horrela, sarrera nagusiak Acha, Aguirre, Aramburu, Arcelus, Arostegui,
Arozarena edo Arregui bezalakoak dira.

Digresio horretatik gure arazorako benetan baliozkoa dena ondoko hau
da: irizpide horrek arazo franko sortzen du euskal deiturak normalizatu behar
direnean, ezen grafia eta forma desberdin asko aurkitzen dugu deitura berbe-
rarentzat (40). Jon Bilbaok ez du erabateko erantzunik arazo horrentzat. Ares-
tian esan dugun bezala, irizpide nagusiari segituz gehien-gehienetan gaur
egungo gaztelaniadun ikasientzat formarik arruntena eta erabiliena hartzen
du (41), baina zenbaitetan bestelako irtenbideak urratzen ditu. Horrela, ba-
tzuetan frantsesezko forma hautatzen du (42), beste batzuetan deitura bera bi
grafia edo formarekin normalizatzen du, bata gaztelaniazkoa eta bestea fran-
tsesezkoa (43), baina zer egin gaztelaniazko, frantsesezko eta euskarazko gra-
fiak eta formak pilatzen eta estekatzen direnean, *Etxebarria/Etxeberria* deitu-
rarekin gertatzen den bezala (44)? Edo euskarazko grafia dokumentatua

(37) Egitura korapilotsu hau 35. oharrean aipaturiko akatsaren ondorioa da. Izan ere, aski
litzateke gaur egungo katalogoetan egiten den bezala dokumentu bakoitzean egilearen izen-deitu-
raren forma bere horretan jasotzea, eta ondoren forma normalizatu bakarra erabiltzea, alegia, hi-
rugarren mailan erabiltzen dena, bigarren mailan forma erdi-normalizatu bat tartekatu gabe.

(38) Horrela, *Alava* eta ez *Alaba*, *Abarzuza* eta ez *Avarzuza*, *Acedo* eta ez *Azedo*, *Aibar* eta
ez *Aybar*, *Ibarra* eta ez *Ybarra*, *Irizar* eta ez *Yrizar*, etab.

(39) Aurreko oharrean aipatu ditugunaz gain, *Agirre*, *Harambourou*, *Arotçarena*, *Aroztegyu*,
Arregi, *Artzelus*, *Atxa*... bezalakoak ikus daitezke. Aipatzekoa da ere 'r' gangarduna onartzen dela
(*Agi're*, *A' rizbalaga*, *A'ratibel*, etab.)

(40) *Adibidez*, *Aramburu*, *Harambourou*, *Haramburu*, *Haranboure*, *Arambourou*.

(41) Aurreko kasuan *Aramburu* da sarrera nagusia, alegia, hirugarren mailan kontuan har-
tzen den sarrera bakarra.

(42) *Adibidez*, *Arispe*, *Harispe* eta *Harizpe* artean azkena hautatzen du, eta ez lehena, gaz-
telaniadunentzat arruntagoa eta erabiliagoa.

(43) *Adibidez*, *Azurmendi* eta *Asurmendi*, *Arosamena* eta *Arozamena*, *Arriaga* eta *Harria-
gue*, *Arizmendi* eta *Harizmendi*,

(44) *Aldaera* batzuk jasoko ditugu: *Etcheverry*, *Etcheberry*, *Etcheberri*, *Echeverri*, *Eseverri*,
Detcheverry, *Echeberri*, *Etcheberri*, *Eseberri*, etab. Zer esanik ez, *Etxebarri*, *Etxeberria*, *Etxebar-
ria*, *Txabarri* edo *Txabarria* formen aldaerak kontuan hartzen badugu.

dagoen aldaera bakarria denean (45)? Edota gaztelaniadun ikasientzat ere euskarazko grafia gaztelaniazkoa baino askoz arruntagoa denean, Resurreccion Maria Azkuerekin gertatzen den bezala? Hiru kasu horietan, obraren ardatza gaztelania izan arren, Jon Bilbaok euskarazko grafia hautatzen du (46).

Bada beste irizpide garrantzitsu bat, hots, katalogoaren trinkotasunarena. Horren arabera, normalizatutako grafia edo forma batek berarekin lotutako guztiak normalizarazten ditu. Adibidez, leku-izenak gaztelaniazko formaren arabera normalizatzen badira, logikoa da termino bera deitura denean gaztelaniazko formaren arabera normalizatzea (47). Era berean, euskal deitura bat euskal grafian normalizatzen bada, harekin lotutako guztiak ere horrela normalizatuko dira, dokumentatuta ez badaude ere (48). Berdin gertatzen da gaztelaniaz edo frantsesez normalizatuekin. Horrek esan nahi du *Eusko Bibliographian* egileen deituren forma eta grafia katalogoaren beraren osotasunaren eta trinkotasunaren menpekoak direla. Edo, arestian ikusi dugun bezala, sarri askotan egileen borondatea edota erabilera bigarren mailako eragilea dela, irizpide orokor batek azpiratua.

Beraz, funtsean Jon Bilbaok bi irizpide nagusi darabiltza: gaztelaniadun ikasien erabilera arrunta eta katalogoaren trinkotasuna (49). Kasu bietan gaztelania da ardatza baina, kasu, euskal deituren zenbait korapilori irtenbidea emateko, derrigorrez euskarara jo beharrean aurkitzen da.

Halaber, kontuan izan behar ditugu beste bi datu: Jon Bilbaok bere lana diseinatu zuenean (1940-45 urte inguruan) (50) oraindik ez zegoen ordenagailurik eta euskara batua sortzeko beste bizpairu hamarkada beharko zen. Horrek lanaren ezaugarri nagusiak hobeto ulertzen laguntzen du: alde batetik, paperean argitaratzeko bideratua zegoen (hortik sarrera nagusien egitura korapilotsua lan modernoagoen aldean), eta bestetik, sasoi hartako euskaltzale ikasien hizkuntza-erreferentzia nagusia gaztelania edo frantsesa zen. Ez de-

(45) Adibidez, Akesolo, Akordagoitia, Arketa, etab.

(46) Badirudi ez diola kasu handirik egiten egilearen borondateari, ezen Koldo Mitxelena edo Salbatore Mitxelena bezalakoen sarrera nagusi normalizatua Michelena da.

(47) Hori da gertatzen dena Alava edo Abarzuza bezalako terminoekin, gorago ikusi dugun bezala.

(48) Hori da gertatzen dena Etxa- edo Etxe- hasiera duten deitura guztiak. Etxebarria normalizatzea erabakiz gero, horren atzetik datoz Etxeberri, Etxeberria, Etxarri, Etxaide, Etxepare, Etxaleku, etab. Berdin gertatzen da Azkuerekin: horren atzetik datoz Azkuna, Azkuenaga, etab.

(49) Trinkotasuna munduko edozein katalogoren irizpide nagusienetako eta, neurri handi batean, bere kalitatearen neurria. Adibidez, *Die Deutsche Bibliothek*-en egindako bilaketa batean Bacon deituradun 173 egile daude; horietako batzuek, Roger Bacon edo Francis Bacon, kasu, hurrenez hurren hamar eta hogeita lau aldaera dituzte dokumentatuak, baina katalogoaren trinkotasunari esker oso erraz bilatzen eta antolatzen dira.

(50) "Lan au Columbia University-ko dotor-solasaldiaren bearrezko oinarri bezala asi nuen [...] bibliographiako lanean 1940gn. urtetik eta 1945gn.tik ia bete-betean jardun dudala esan nai du" (Ikus *Eusko Bibliographiaren Itzaurrea*). Bestalde, lanaren lehenengo tomoa 1970ean argitaratu zen, alegia, euskara batua oraindik bere hastapenetan zegoenean.

zagun ahantz Campionek, Eleizalde, Urkixok, Azkuek, Aitzolek, Barandiaranek, Lekuonak edo Mitxelenak, euskaldunak izan arren gaztelaniaz argitaratu zituztela beren lan asko edo gehienak. Era berean, Broussain, Lacombe, Lafite, Narbaitz edo Lafonentzat frantsesa zen erreferentzia nagusia. Testuinguru horretan kokatu behar ditugu Jon Bilbao eta bere lana. Erran nahi baita, erabili zuen benetako irizpidea honako hau zen: intelektual-komunitate horretan arruntenak eta erabilienak ziren grafiak eta formak. Horrek esplikatzeko du gaztelaniaren nagusitasuna, frantsesaren presentzia nabarmena eta euskararen erabilera marginala, baina kasu batzuetan ezinbestekoa.

Laburbilduz: Jon Bilbaoren lana euskara batuaren aurreko egoeran sortua da, eta orduko baldintzek eta ohiturek bideratua. *Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK)* bezalako katalogo bat, ordea, bete-betean euskara batuaren prozesuaren barruan sortutakoa da eta, ondorioz, sortzen ari den intelektual-komunitate berri baten zerbitzura egon behar du. Bestalde, ordenagailuen agerpenak katalogoa beste modu batera diseinatzera behartzen du.

Ororen buru, bada beste datu erabakigarri bat: funtsean gaztelaniazkoa zen katalogo batean zenbait korapilo askatzeko euskara erabiltzea derrigorrezkoa suertatu bazen, nola ez pentsa hori dela soluziorik onena euskarazko batean?

Jon Bilbaorengandik jaso behar dena izpiritua da, ez letra.

VI

Zenbait kasutan euskal grafia akademikoa ezartzea harrigarria suerta daiteke. Esana dugun legez, zaila da ohiturak aldatzea eta, kasu batzuetan, grafia horren logika eta oinarria ez da lehen kolpera atzematen. Har dezagun adibide bereziki bihurri bat: zein litzateke Antoine d'Abbadie-ren deituraren forma zuzena gure katalogoaren sarrera nagusi gisa paratzeko? Azter dezagun auzia hasiera-hasieratik, aurrez esana duguna une batez ahantziz. Bi irizpide ditugu, erabat kontrajarrita:

a) Usadio arrunta: Frantsesez ia beti D'Abbadie da. Horrela agertzen baita berak edo berari buruz idatzi diren argitalpen ia guztietan. Salbuespenak zenbait euskal testu dira, behe-rago zehaztuko direnak, eta XIX. mendeko zenbait testu (51).

(51) XIX. mendeko erabilera gaur eguneko baina askoz ere anizkorragoa da. Horrela, Anton Abadiak berak gehienetan Antoine D'Abbadie sinatzen bazuen ere, gutxienez beste lau modu honetan sinatutako dokumentuak aurkitu ditugu haren gutunieran: Antoine D'Abbadie D'Arrast, Antoine Thompson D'Abbadie, Anton Abbadia (euskarazko eta frantsesezko zenbait gutunetan) eta Antonio de Abadia (gaztelaniazko gutun batean).

b) Euskal grafia: Egungo euskal grafia akademikoaren arabera Abadia izan behar luke. Izan ere, *Abadia Ürrüstoi* da haren oinetxearen izena, eta euskaraz horrela idazten da. Hala ere, berak Hendaian eraikitako gaztelu berria honela bataiatu zuen: Abbadia.

Ikus dezagun orain nola idazten duten haren izena gaur egun zenbait euskaltzale nabarmenek (batez ere euskarazko testuak aipatuko ditugu) (52):

Abadia: J.L.Davant (eu) (batzuetan), Xipri Arbelbide (eu) (behin bakarrik).

Anton Abbadia: Patri Urkizu (eu), Aurelia Arkotxa (eu), Txomin Peillen (eu), Jean Haritschelhar (eu).

Antonio Abbadia: P. Xarritton (eu).

Antoine Abbadia: K. Altonaga (eu).

Anton D'Abbadie: Iratzeder (eu).

Antoine D'Abbadie: J.L. Davant (eu), B. Oihartzabal (eu), Manex Goyhenetche (fr), J.B. Orpustan (fr), J.A. Arana Martija (eu), Jon Casenave (eu), Lola Valverde (eu), Ana Mari Toledo (eu), Patxi Altuna (eu), J.L. Lizundia (eu), X. Altzibar (eu), O. Alvarez Gila (eu), Amelia Hernández (eu).

Antonio D'Abadie: Xipri Arbelbide (eu) (behin bakarrik).

Antoin Abadi: Jon Kortazar (eu).

Orobat, erants dezagun nolako erabilera duen zenbait entziklopediatan:

Antoine Thompson D'Abbadie: Lur, Vox, Planeta.

Antoine Thompson Abbadia: Euseñor, Elhuyar.

Beraz, bitxikeriak alde batera utzita (Antonio, Abadie, Abadi), badirudi euskaraz idaztean nagusiki bi modutara idazten dela: euskal grafiazat joko duguna: Anton Abbadia eta frantses grafian: Antoine D'Abbadie (tarteko bidea, Antoine Abbadia, baita ere erabilia da). Biziki azpimarratzekoa da euskal testuetan ere gehiagotan agertzen dela frantses grafian euskal grafian baino.

Badugu ondorio harrigarri xamar bat: euskal grafia akademikoan (Abadia) ez du ia inork idazten (Davantek kasu gutxi batzuetan, gehienetan frantses grafia erabiltzen baitu euskarazko testuetan ere; Arbelbidek behin bakarrik). Euskal grafian idatzi nahi dutenek ere Abbadia aukeratzen dute. Zergatik? Ziur aski, haren gaztelu berriaren izena horrelaxe idazten delako.

(52) Aipu guztiak in *Antoine d'Abbadie 1897-1997; Congr s International; Eusko Ikaskuntza: Ezohiko Kongresua; Euskaltzaindia: XIV. Biltzarra; Hendaye, Sare, 1997.*- Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia, 1998. Irakur bedi eu=euskaraz, fr=frantsesez.

Beraz, hiru hauetako bat aukeratu behar dugu: euskal grafia akademikoa (ABADIA), euskal grafia arrunta (Abbadia) eta frantses grafia (D'Abbadie).

Abadia/Abbadia hautuari dagokionez, kontuan izan behar da Euskaltzaindiak behin eta berriro azpimarratu duela "leku-izenak zein bestelako izen bereziak, neurri batean, hizkuntza arruntaren sistematik kanpo daudela" (92. Araua, *Zuberoako Herri Izendegia*). Orobat, ez dezagun ahanztz frantses forma dela euskal testuetan ere gehien erabiltzen dena.

Baina argudio abstraktuetan baino, jar dezagun arreta irizpide bakoitza segitzearen ondorio zehatzetan. Antoine D'Abbadie da munduan zehar ia salbuespenik gabe erabiltzen den forma eta, beste euskaldun jakintsu asko ez bezala, kasu honetan pertsona nabarmena izan zen Euskal Herritik kanpo ere (batez ere Frantzia). Anton Abbadia, berriz, ongi dokumentatua dago, besteak beste egileak berak horrela deitu zuelako bere gaztelu berria (53). Bestalde, euskal testuetan sarri erabili izan da. Baina kontura gaitzen ezin dela erabaki isolatua izan. Adibidez, zer egin gainera Abadiatarrekin?

-Michel-Arnauld d'Abbadie (1772-1832): aita (beste batzuetan Michel).

-Antoine d'Abbadie (1810-1897).

-Mme. Antoine d'Abbadie (?-1901): emaztea (Virginie Vincent de Saint Bonnet ezkondu aurretik).

-Michel-Arnauld d'Abbadie d'Arrast (1815-1893): anaia (beste batzuetan Arnaud, Arnaud-Michel edo Arnaud).

-Charles-Jean d'Abbadie d'Arrast, Etxauzeko jauna (1821-1901): anaia (beste batzuetan Jean-Charles edo Charles).

-Mme. Charles d'Abbadie d'Arrast (Etxauzeko anderea) (1837-1913): anaiaren emaztea, Marie Coulomb ezkondu aurretik (beste batzuetan Coulon). Jon Bilbaoren arabera, Sophie-Caroline-Lisette izeneko neska bat da, (alaba?, iloba?), baina datu okerra da.

-Angele d'Abbadie du Saillant (1872-1955): Arnaud-en alaba (Marie-Angele d'Abbadie d'Arrast jaiotzez, Gui de Lasteyri du Saillant-ekin ezkondua), oroitzapen argitaragabe batzuen egilea.

-Bernard d'Abbadie d'Arrast (1906-1968): Arnaud-en iloba (Ferdinand bere semearen semea), *Épopée d'Arnauld d'Abbadie d'Arrast 'Ras Mikael' en Ethiopie* izeneko liburu baten egilea.

(53) J.B. Orpustanen arabera, *Abbadia*, grafia horrekin, erabat izen asmatua da: "...ce nom en apparence aussi latin que basque, mais qui n'est ni tout à fait (le -d-) l'un ni tout à fait (les deux -bb-) l'autre... [bi paragrafo beheerago] ...dans l'invention du nom hybride *Abbadia*... [...] ...le château néo-gothique d'*Abbadia* avec son nom néo-latin (ou néo-basque?)..." Anton Abadiak berak asmatua alegia, helburu sinbolikoren batekin. Ikus J.B. Orpustan: "Les noms de maison issues du latin *abbatia* dans le Pays Basque médiéval", in *Antoine d'Abbadie 1897-1997; Congrès International; Eusko Ikaskuntza: Ezohiko Kongresua; Euskaltzaindia: XIV. Biltzarra; Hendaye, Sare, 1997.*- Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia, 1998, 481-492 or.

-Guilhem d'Abbadie d'Arrast (1934-): apaiza, Bernard d'Abbadie d'Arrasten semea, familiari buruzko liburu baten egilea (1982 eta 1992an argitaratua).

Aipaturiko guztiak libururen baten egileak dira, batzuetan argitaragabeak badira ere. Baina badira Abadiatar gehiago:

-Abbadie: Nafarroako Parlamentuko presidentea XVIII. mende bukaeran.

-Arnaud Abbadie (1843-1916): *Aphezac soldado*-ren egilea, (beste batzuetan Arnauld).

-François Abbadie: *Société Borda* izeneko elkartearen burua XIX. mendean, bizpahiru libururen egilea.

Eta abar.

Aurreko atalean erabili dugun tinkotasunaren irizpideari jarraiki, badirudi Antonentzat euskal forma bat aukeratzeak berez dakarrela bere senide eta deiturakide guztiei forma berbera ezartzea. Zein?

Bada argitu beharreko puntu bat: Arnauldek eta Charlesek (anaiek) 1883an lortu zuten beren deiturari "d'Arrast" gehitzeko lege-baimena. Baina Antonek espreski debekatu zion bere arreba Julia-ri beste horrenbeste egitea (legez debekatu, ez dakigu zer dela eta). Bestalde, seme-alabarik gabe hil zenez gerroz (baita Julia ere), familiako guztiak (Arnauld eta Charlesen ondongoak denak) "d'Arrast" dira. (54)

Alegia, lau anai-arreba artean ere bi deitura desberdin ditugu, D'Abbadie eta D'Abbadie D'Arrast. Zer esanik ez, aita D'Abbadie baino ez da. Beraz, ez dirudi astakeria esatea Abbadia bakarra Anton zela, bere aita eta arreba D'Abbadie, eta anaiak eta ondorengoak, D'Abbadie D'Arrast.

Has gaitezen zuhaitza inausten: ez dirudi zentzuzkoa *Abbadia* gaztelua-ekin batera zerikusirik ez zeukatenei (aita, anai-arrebak, ilobak, etab.) Abbadia forma esleitzea. Zerbait denontzat balioko duena jartzekotan, jatorrizko etxea jarri beharko litzateke: Abadia. Baina, hartara, Ürrüstoi gehitzera behartuak gaude Arnauld, Charles eta bere ondorengoen kasuan (Abadia D'Arrast ez dirudi oso zentzuzkoa).

Beraz, badirudi Abbadia formak Antonentzako baino ez duela balio. Hor-taz landara, bi aukera daude: D'Abbadie D'Arrast ala Abadia Ürrüstoi. Logika hutsez, euskarazko katalogo batean euskarazko formak lehenetsi beharko lirateke eta, bestalde, katalogoaren tinkotasunaren irizpideari segituz, aipatutako guztiei euskal grafia akademikoa ezarri beharko litzateke: *Abadia Ürrüstoi* da familia horretako kide guztien oinetxearen izena eta horixe da, hain zu-

(54) Honez gero bi aldiz aipatu dugun Biltzarraren agirietan aurki daitezkeen datuak dira. Irakur bitez, bereziki, J.L. Davanten ("Antoine Abbadie-ren bizitzaz (1810-1897)", 3-14 or.), Manex Goihenetxeren ("Antoine d'Abbadie intermédiaire social et culturel du Pays Basque du XIXe siècle?", 175-208 or.) eta J.A. Arana Martijaren ("Antoine d'Abbadieri buruzko oharrak", 503-506 or.) artikulua aipatu liburuan.

zen ere, ABKren gaisetiko irizpide eta erreferentzia guztiekin hobeto bateratzen den aukera. Familia horrekin zerikusirik ez duten Abadiatarrak ere, logikaz, grafia akademikora bildu beharko lukete.

Hala ere, aukera horrek oztopo handia du: salbuespenak salbuespen (Davant, Arbelbide), ia inork ez duela orain arte erabili. Hortaz gain, familiaren kide nabarmenenak (Antonek) Abbadiaren aldeko tirria erakutsi zuen eta, horri jarraiki, euskal testuetan ere grafia hori dexente hedatu da. Beraz, badirudi kasu honetan salbuespena egiteko aukera ez dela, inola ere, baztergarria. Beraz, zein forma hautatu?

Artikulu honen egilearen ustez kasu honetan ez da salbuespenik egin behar. Arrazoia begibistakoa da: salbuespenik egiten bada, frantsesezko grafia onartu behar da, ezen ez du zentzurik *Abbadia* gazteluarekin zerikusirik ez zutenei forma hori ezartzea. Esan nahi baita, ABKn frantses grafiaren eta euskal grafiaren artean bigarrena lehenetsi behar da, hori baita gaur egungo euskaldun ikasiek gero eta gehiago erabiltzen dutena.

Salbuespenak, berez, kasu bereziak argitzeko asmoz egiten dira; betetzen ote da baldintza hori? Ez, esku artean dugun honetan salbuespena egitea argigarria baino nahasgarria suertatzen da, pertsona baten grafia berezi-berezia (*Abbadia*) multzo zabal bati hedatzean. Hortik ateratzen da guztion argitasunerako praktikoagoa dela Abadiatar guztiei jatorrizko oinetxearen grafia errespetatzea, salbuespenak egitea baino. Beraz, gaur egungo euskaldun ikasi gehien erabileraren kontra badoa ere, argitasunaren eta tinkotasunaren mesedetan, kasu honetan ez dut komenigarria ikusten frantsesezko grafiari eustea.

Orobat, esana dugu katalogo bat antolatzeko deituradunaren borondatea bigarren mailako irizpidea dela, baina kasu honetan ere uste sendoa dut Abadiatarretatik inor ez litzatekeela haserretuko euskarazko katalogo batean beren deituraren euskarazko grafia akademikoa erabiltzeagatik, azken finean, beren jatorrizko oinetxearen izena baita, ez besterik. Era berean, uste sendoa dut euskal grafia akademikoa gero eta gehiago zabalduko dela euskaldun ikasien artean, horrelako kasu berezi eta bihurrietan ere.

Labur: salbuespenak egitea posible bada ere, tentuz erabili beharreko balibidea da, katalogoaren tinkotasuna eta koherentzia hankaz gora bota nahi ez badugu.

VII

Ikerketa guztiek norabide bakarra erakusten dute: sarrera nagusi gisa euskal herritarren euskal deiturak euskal grafian idatzi behar dira. Euskara baituaren bilakaerak horretara eramaten gaitu bete-betean. Bibliotekonomia

arauek gaur egungo euskaldun ikasien zerbitzura jartzeko agintzen digute. Gai honetan itzal nabarmena duten Resurreccion Maria Azkue edo Jon Bilbao bezalako jakintsuek lan horri ekiteko esaten digute. Gure hizkuntzaren normalizazio berantiarrak sor dezakeen unean uneko hutsuneak edo desorekak politikopoliki gaindituko dira.